

KANALAK

Gure produktu eta zerbitzua bezeroengana helarazteko egingo duguna:

Gure proiektua merkatu- segmentuetara iristeko kanal egokia erabiltzea ezin bestekoa da, izan ere, hauen bidez balio- proposamen egokia eraman eta arrakasta lortzeko aukera izango dugu.

Kanalen artean, gure komunikazio-kanal moduan webgunea eta lokal fisikoa izango ditugu. Webgunean bertan, gure enpresaren inguruko informazio dena eskuragarri egongo da eta ez dira Durangoko lokal

fisikora gerturatu beharrik. Gure produktu edo zerbitzua online saltzen dugunean, ez gara bitartekariez baliatzen, salmenta-kanal zuzena erabiliko dugu eta.

